# eingoxo nau!

> 2010eko arazoa
3.

UDAL LIBURUTEGIA BERRIZ

BERRIZKO UDALA > Berdintasun Saila > 94 682 40 36 > berdintasuna@berriz.org > www.berriz.org



Argazkia: Miraval ahizpak. Patria, Minerva eta María Teresa hurrenez hurren.

Adierazpen instituzionala
Maskulinotasun berri baten alde
Zubiak eraikitzen bloga
Puntua ebakitzeko moduan
Agenda

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
BFAk diruz lagunduta

# HIRUGARREN EINGO XONAU! Saharagaz

Berrizko Udalak saharar herriarekin aspalditik dihardu elkarlanean, eurenganako elkartasuna adierazi eta proiektuetan laguntzen.
Oporrak bakean, janari bilketa eta UNMS Emakume Saharauen Batasun Nazionalarekin egiten diren lanak dira horren adierazgarri.

35 urteetan eta bereziki egunotan bizi duten egoeraren gainezko zuzeneko informazioa jasotzeko aukera daukazue **www.mujeresaharauis.es** helbidean. Emakume sahararren eta euren ekimenen berri ematen dute, nola bizi diren, nola dauden antolatuta, helburuak....

Berrizko Udalak eurenganako elkartasuna adierazi nahi du bereziki une latz hauetan, Marokoren indarkeria, erailketak eta torturak gaitzetsi eta nazioarte mailako erakundeen inplikazioa eskatu.

## *EINGO XONAU!! 3. publicación*

*En estos momentos tan duros que está viviendo el pueblo saharaui, queremos mostrar nuestro apoyo al pueblo saharaui y condenar la violencia, asesinatos y torturas que esta realizando Marruecos y pedimos la implicación internacional. El Ayuntamiento de Berriz, lleva años colaborando en distintos proyectos, como, Vacaciones en paz, recogida de alimentos y trabajando con la Unión Nacional de Mujeres Saharauis, UNMS.*

*Por eso os hacemos llegar, esta pagina **www.mujeresaharauis.es** en el que informan de cómo viven, los objetivos marcados y de que manera se organizan.*



## 2010EKO AZAROAK 25 "EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA"

Beste urte batez eta legegintzaldi honetako azken azaroak 25 honetan, batez ere gazteen arreta sustatzeko asmoarekin bilduko gara.

Azken urteotako ikerketen eta datuen arabera, 30 urtetik beherako emakumeen salaketa kopurua gorantz doa; salaketen % 40 baino gehiago 30 urtetik beherako emakumeena da.

Komunikabideek desitxuratu egiten dute emakumeenganako indarkeria, eta emakume ezkondua, nagusia, etorkina eta maila ekonomiko ertain-baxukoaren irudia isladatzen dute.

Maila ekonomiko eta sozial jakin bateko gizon-emakumeen artean matxismoa gaindituta dagoela dirudien arren, ikasketak egin eta lan merkatuan sartzeko aukerak ditugun arren, datuek bestelako emaitzak erakusten dizkigute. Independentzia ekonomikoa ez dago bermatuta, are gutxiago independentzia emozionala. Botere banaketa hau apurtzen ez den bitartean, egiturazko indarkeria mantenduko dugu.

Otro año más y siendo éste el último 25 de noviembre de esta legislatura, queremos llamar la atencion y trabajar en especial con la gente joven.

Según los datos de los últimos años, más del 40% de las denuncias interpuestas por maltrato, provienen de mujeres menores de 30 años.

El estereotipo de las mujeres maltratadas que llega al imaginario social a través de los diferentes medios de comunicacion, es de mujeres casadas, adultas, inmigrantes y de un nivel económico bajo-medio.

Las parejas de las mujeres menores de 30 años, por lo general, suelen ser de la misma edad.
Hay una creencia de que las mujeres y hombres de un nivel social medio alto y con estudios, tienen superado el machismo y que ya contamos con las mismas opciones y oportunidades de estudio y empleo. Pero los datos no reflejan eso, puesto que la independecia económica no está garantizada y mucho menos la emocional. Mientras no se rompa con este reparto de poder, mantendremos la violencia estructural.

Todas y todos, tenemos que decir y que hacer, si es que queremos solucionar este problema de raíz.

Denon zeregina da arazo hau sustraitik kendu eta irtenbideak bilatzea, denok daukagu zeresana.

Herritarren zerbitzurako erakunde gisa, Udalak prebentzio politikan, hezkuntza ez sexistan, emakumeen jabekuntzan eta gizonen erantzukizunean lan egiteko eskumena eta betebeharra dauka. Eta emakumeok behar ditugun baliabideak eskaini behar ditu, beste eragile eta administrazio batzuekin elkarlanean.

Aurten, Euskal Herrian erail dituzten emakumeen izenak aipatzea egokia iruditu zaigu, izen, abizen eta bizitza bat zuten emakumeak baitziren, eta ez datu estatistikoak.

Elena Cal. 2010eko urtarrilaren 17an, Tolosan. 45 urte.
Amelia Sanchez. Barakaldon semeak erail zuen. 65 urte.
Isabel Velez. Lasarten. 48 urte. 23 urteko semeak erail zuen.
Bonifacia Ruiz de Arbulo. 2010eko apirilaren 5ean, Agurainen. 91 urte.
Amelia Amaia. 2010eko uztailaren 25ean, Bilbon. 36 urte. Urruntze agindua zuen.
Annie Froment. Miarritzen, 2010eko irailaren 20an. 70 urte zituen, eta 30 urtez banatuta zegoen bikotearengandik.
Chaid Aisa. Zarautzen, 2010eko urriaren 7an. Urte eta erdi.

Baliabide ekonomikoak eta pertsonalak premiazkoak dira gaitz honi aurre egiteko. Jendarteko sentsibilizazioa eta salaketa publikoak ere beharrezkoak dira, erasotzaileen eta tratu txar emaileen aurrean tolerantziarik eza praktikatuz; eta isilpean dauden emakumeei baliabideak eskaini, horrelako egoerei aurre egin eta egoera horrekin behin betiko amaitzeko.

## 25 DE NOVIEMBRE DE 2010 "DIA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES"

El Ayuntamiento como entidad de servicio a la ciudadania, tiene competencias y debe trabajar en politicas de prevención, educación no sexista, empoderamiento de mujeres, corresponsabilidad de hombres y tambien debe ofrecer recursos necesarios a las mujeres que hayan o esten sufriendo situaciones de maltrato sexista en coordinación y colaboración con otras entidades.

No queremos dejar pasar esta oportubidad, sin hacer un pequeño homenaje a las mujeres asesinadas esta año en Euskal Herria

Elena Cal, asesinada en Tolosa el 17 de enero 2010, 45 años.
Amelia Sanchez,asesinada por su hijo en Barakaldo, 65 años.
Isabel Velez, 48 años asesinada en Lasarte a manos de su hijo de 23.
Bonifacia Ruiz de Arbulo, 91 años asesinada en Agurain- Salvatierra.
Amelia Amaia, asesinada en Bilbao el 25 de julio de 2010 por su pareja que tenia una orden de alejamiento.
Annie Froment, 20 de septiembre de 2010, 70 años, llevaba 30 años separada de su ex pareja.
Chaid Aisa, en Zarauz, el 7 de octubre de 2010, un año y medio.

Los recursos económicos y personales son esenciales para hacer frente a éstas situaciones. La sensibilización ciudadana las denuncias publicas, y la tolerancia cero ante agresiones sexistas, sexuales y o malos tratos y por otra parte hacer un llamamiento a las mujeres que esten en situaciones de maltrato para que exijan los recursos necesarios.

A G E N D A

## • azaroak 20

**GRAFFITI TALLERRA.** Gari graffitilari berriztarrarekin arratsaldeko 16:00etan, Probalekuan.
*Con el grafitero berriztarra Gari en el probaleku a las 4 de la tarde.*




**ODOL MALKOAK; Antzerkia/Teatro**
Traman eta Brix Antzerki taldea, Txo! KOLEKTIBOA eta Garazi Etxaburu dantzaria elkarlanean, estreinaldia Berrizko Kultur Etxean. «Emakumeenganako indarkeriari ez».
**Kultur etxean, iluntzeko 20:00etan, euskaraz. Sarrera:5,00 euro.**

## • azaroak 23

**ZIPRISTINTZEN**

**ERMUKO GIZON TALDEA, GRUPO DE HOMBRES DE ERMUA**
Euren ibilbidea aurkeztuko dau jendaurrean;
Nola hasi ziren elkartzen, zertarako, helburuak eta lorpenak.
*Se presentarán ante los hombres de Berriz para contar como empezaron, para qué, logros y objetivos que se plantean.*
**Tokia- Lugar: Kultur Etxea Ordua 18:00 etan**

GURE IZARRAK
Berrizko Emakumeen Taldea

## • azaroak 25

**ELKARRETARATZEA ETA ANTZERKI SKETXA (CONCENTRACION)**
GURE IZARRAK emakume taldearekin batera
**arratsaldeko 19:00etan Urtiaga Plazan**

## • azaroak 27

**BELDUR BARIK!**
**ADIERAZI I. JAIALDIA BILBON**
**I. Festival de BELDUR BARIK! EXPRESATE en Bilbo**
Tailerrak, eztabaida mahaiak, musika, artea, bertsorap eta gaueko 10:00etan EUTSI taldearen kontzertua.
Autobuserako izena emateko www.beldurbarik.org helbidean eta informazio gehaigo, berdintasuna@berriz.org helbidean.
Para apuntarse en el autobús, en la página **www.beldurbarik.org**. Más información en **berdintasuna@berriz.org**




## • abenduak 10

**LAS GARAIPEN TALDEA**
Gipuzkoako emakume taldea; berton jaiotakoak eta kanpotik etorritako emakumeak elkarlanean, emakumeenganko indarkeriaren aurka eta emamakumeen lidergoagatik.

asociación garaipen elkartea

Nola antolatu ziran, helburuak.....
Grupo de mujeres reunidas en Gipuzkoa, mujeres de aquí y de allá, trabajando conjuntamente contra la violencia hacia las mujeres y por el liderazgo de ellas mismas.
**Kultur Etxean arratsaldeko 16:00etan**

Hurrengo orrietan, gizon talde honi eta hezkidetza gaiari lotutako informazioa helarazten dizugu, eta gogoratu aldizari honetan agertzen dan materiala berdintasun sailean eskatu dezakezuela.

# SEXISMOAREN AURKA: MASKULINOTASUN BERRI BATEN ALDE; BERDINTASUNAREN BIDEZ GIZONOK ERE ASKO DUGULAKO IRABAZTEKO

Gaur aurkeztera gatozen taldeak Ermuko Emakumearen Topagunean maskulinotasunari eta sexualitate ez zapaltzaileei buruz eginiko ikastaroan du abiapuntua. Hasieratik tailer honetan parte hartu genuen hamabost pertsonek tailerrean egindako lanarekin aurrera jarraitzeko beharra sentitu genuen. Horren ondotik sortu zen "ZIPRIZTINTZEN" taldea.

"ZIPRIZTINTZEN" deritzana gizon talde batek osatzen dugu. Partaideon iritziak ondoko hauek dira:

• Emakume izategatik soilik emakumeek diskriminazioa jasaten dutela jakin badakigu. Jakitun gara justizia egiteko uztarri eta zama horretatik askatu egin behar direla, beraiengandik ez ezik, baita gizonongandik ere.

• Gure ustez, guri ere emakumeenganako diskriminazioak kalte egiten digu. Gure gizarte matxistak etengabe eta une oro etika gutxi duen autoafirmazio ekintzak egitera garamatza, emakumeentzako zapaltzaileak eta guretzako hezitzaileak diren ekintzak.

• Gure iritziz, gizonok gure sexismoaz arduratu behar gara, eta lan egin behar dugu gure kideek jarrera eta joerak alda ditzaten.

• Gure buruak feministatzat eta antisexistatzat ditugu, baina ez gara izate huts horrekin konformatzen; modu sutsuan lan egiten gaude eta gehiago egitearen alde gaude sexismoarekin bukatzeko.

• Emakumeenganako opresio moduei -indarkeria matxista dela, lanerako edo aisialdirako diskriminazioa dela- modu aktiboan aurre egiteko beharrean sinesten dugu, sexismoan eta generoan oinarri duten justizia ezak barne izanik. Horri guztiari aurre egiteko, zapaltzaileak ez diren maskulinotasun



## CONTRA EL SEXISMO, POR UNA NUEVA MASCULINIDAD, PORQUE LOS HOMBRES TAMBIÉN TENEMOS MUCHO QUE GANAR

El colectivo que hoy presentamos surge en Ermua a raíz de un taller realizado en la Casa de la Mujer sobre masculinidad y sexualidades no opresivas.

Desde un principio, todos los participantes en el taller, unos quince más o menos, sentimos la necesidad de dar continuidad al trabajo realizado en dicho taller. Es por ello que surgió "ZIPRIZTINTZEN".

ZIPRIZTINTZEN está formado por un grupo de hombres que:

• Somos conscientes de la discriminación que sufren las mujeres por el hecho de ser mujeres; somos también conscientes de su necesaria liberación como acto de justicia, y no solo de ellas, también de todos los hombres.

• Creemos que la discriminación hacia ellas también nos perjudica a los hombres, que la sociedad machista nos "induce" a un constante comportamiento de autoafirmación masculina poco ético, opresivo para las mujeres y constrictivo para los hombres.

• Creemos que es necesario que los hombres nos responsabilicemos de nuestro sexismo y trabajemos por el cambio de otros hombres.

• Nos consideramos profeministas y antisexistas, pero no solo lo somos, sino que trabajamos y trabajaremos activamente por el fin del sexismo.

• Creemos en la necesidad de desafiar de forma activa tanto la opresión sobre las mujeres (desde la violencia machista, hasta otras formas de opresión como la discriminación laboral, la discriminación en el acceso al ocio...etc.), como el sexismo y la injusticia por cuestiones de género. Todo ello, sobre la base de formas de masculinidad no opresivas, y del desarrollo de relaciones no sexistas con las mujeres.

• Desafiamos la homofobia, el prejuicio y la opresión contra las personas homosexuales, transexuales y/o con una concepción de su sexualidad diferente a la heterosexual.

Queremos animar a todos los hombres a unirse a nosotros en nuestro intento de cambio y de liberación. Por una sociedad sin sexismo ni homofobia, sin hombres educados para oprimir, ni mujeres oprimidas. Nuestra lucha es por ser uno mismo, porque consiguiendo la igualdad, los hombres también tenemos mucho que ganar.

UDAL LIBURUTEGIA · BERRIZ ·

ereduetan oinarrituz eta emakumeekin sexistak ez diren harremanak garatuz.

• Homofobiari, aurreiritziari eta homosexual, transexualen edo jokaera heterosexualaz gain sexualitatearen bestelako kontzepzioa duten pertsonen zapalkuntzari desafio egiten diogu.

Aldaketa eta askatze saio honetan gurekin bat egiteko deia egiten diegu gizon guztiei. Sexismorik eta homofobiarik gabeko gizarte baten alde; non gizonak ez diren hezituko zapaltzaileak izan daitezen, ez eta emakumeak zapalduak izateko ere. Gure borroka norbanakoa norbera den moduan izan eta agertzearen aldekoa da; berdintasuna landu eta lortuz gero, gizonok ere asko baitaukagu irabazteko.



## HERRIKO GIZONOI:

Gaur egungo gizartean hainbeste hitz egiten den honetan gizonon eta emakumeon berdintasunaren inguruan, gizonek ere baduzue zer esana eta zer egina emakumeenaganako indarkeriarekin apurtzeko. Hori dala eta, herriko gizonoi zuzendutako hitzaldia antolatu dogu, Ermuko ZIPRIZTINTZEN gizon taldeak bere esperientzia azaldu dezan.

## A LOS BERRIZTARRAS:

En nuestras sociedades hoy en día se habla mucho sobre la igualdad entre mujeres y hombres, y para romper con la violencia hacia las mujeres, vosotros también tenéis que decir y que hacer, pro eso, hemos invitado al grupo de hombres de Ermua, ZIPRIZITNTZEN para que os cuenten como y para que trabajan.

## HITZALDIA/ PRESENTACION

**Kultur Etxea**
**AZAROAK 23 NOVIEMBRE**
**Arratsaldeko 18:30ean**

Talde honi edo gai honi buruzko informazio gehiagorako:
**94 682 4036** telefonoa
Correo electrónico
**berditasuna@berriz.org**
helbide elektronikoa

# «ZUBIAK ERAIKITZEN» BLOGA

## HEZKIDETZARAKO EKARPEN ANITZAK BILTZEN DITUEN TXOKOA

Hezkidetzak neskak eta mutilak berdintasunezko harremanak eraikitzeko heziketan lagundu nahi du. Hezkidetzak ez du genero-eraikuntza onartzen, eta genero-sozializazioaren katea apurtu egiten du, hau da, gizonentzat estereotipo maskulinoa eta emakumeenzat femeninoa derrigorrez onartu beharrarekin bukatu. Zera bilatzen du: gizonek eta emakumeek humanizazio-prozesuan garaturiko aberastasun oro berreskuratzea eta edozein pertsonarentzako proposagarri den eskakizun etiko bihurtzea. Zera sustatzen du: ikasle bakoitzak bere singulartasunetik abiatuta askatasunez aukera dezan nor nahi duen izan eta nola lagunduko duen justizia eta askatasun kolektiboan.



**IRAKASLEEK, FAMILIEK ETA BESTELAKO EDOZEIN HEZKUNTZA-AGENTEK HEZKIDETZA SUSTATZEKO EGIN DEZAKEGUNA:**

- Genero-estereotipoen konfigurazioa landu eta hauekiko azterketa kritikoa bultzatu.
- Historian emakumeek Gizateriaren garapenari eginiko ekarpenak ezagutarazi.
- Bizitzarako trebetasunekin zerikusia duten aspektuak landu gizon zein emakumeengan: afektiboak, emozionalak, autozaintza, sozialak... berdintasunezko harremanak sortzen laguntzen dutenak eta inguruarekin elkarrekintza positiboa eta hobea eratzen laguntzen dutenak ere bai.
- Ahozko eta ez-ahozko hizkuntza hezkidetzailea, positiboa, errespetuzkoa, kooperatiboa... promozionatu.
- Munduan bizitzeko dauden era duin mugagabeen adierazpen librea hierarkizaziorik gabe bistarazi eta sustatu: sexuak, etniak, sinesmenak, ezaugarri fisiko eta psikikoak, aniztasun afektibo-sexuala, familia-ereduak, adin ezberdinak...
- Erantzukizuna eta elkarren arteko ardura sustatuz autorregulazioan eta errespetuan oinarrituriko bizikidetza eraiki, hausnarketaren eta konpromisoaren bidez gatazkei era positibo eta baketsuan aurre egiten ikasi eta erakutsi, indarkeria mota oro erauzten laguntzeko: emakumeen aurkakoa, berdinen artekoa...



Gure ZUBIAK ERAIKITZEN BLOGAren xedeetariko bat hau da: gai hauen guztien inguruan jarduteko erabil daitezkeen materialak eta informazio-iturri anitzak biltzea. Bereziki euskaraz daudenak. Horrela, bertan "feminismoa, emakume protagonistak, bestelako irudiak, indarkeriari zero tolerantzia, ikerketak, argitapenak, jardunaldiak, ipuinak" eta halako etiketak aurki daitezke.



**Grupo de Coeducación**
**Zubiak Eraikitzen Heziketa taldea**
http://zubiakeraikitzen.blogspot.com

## material interesgarriak

### JOLASAK




TRIBIAL FEMINISTA




NOR BIZI DA HEMEN?

### ARGITALPENAK




HEZIKETA GIDA
Eskuratzeko: bilgunearrasate@gmail.com



PENTAZITATEA TALDEA :
BIZITZARAKO GAITASUNAK ETA BALIOAK
(2 -16 URTE)
http:// tinyurl.com/pentazitatea
Eskuratzeko
grupo@pentacidad.com

### IRAKURTZEKO



CARLOTAREN EGUNKARI URDINA
CARLOTAREN EGUNKARI MOREA
Gemma Lienas
Eskuratzeko: info@sortzen.org

## BLOG ZUBIAK ERAIKITZEN: Espacio queaglutina, aportacion para la coeducación

La coeducación ayuda a fomentar las relaciones igualitarias entre chicas y chicos. La coeducación no admite la construcción de género y rompe con la cadena de socialización en función de estereotipos de la masculinidad y la feminidad. Busca rescatar toda la riqueza en el proceso de humanización y rescatar las propuestas éticas. Promociona que cada estudiante partiendo de su singularidad que pueda decidir libremente quien quiera ser y ayudar en la libertad y justicia colectiva.

QUE PODEMOS HACER EL PROFESORADO, LAS FAMILIAS Y AGENTES EDUCATIVOS:

- Trabajar en los estereotipos de genero impulsando una mirada critica
- Visibilizar las aportaciones de las mujeres a la historia de la humanidad
- Trabajar los aspectos y habilidades para la vida en mujeres y hombres...para construir relaciones igualitarias
- Promocionar el lenguaje coeducativo, oral y no oral, positiva, basado en el respeto...
- Promover relaciones y modos de vida mundiales, en libertad de expresión en función del sexo, etnias, religiones, diversidad afectivo sexual, modelos de familia, edades...
- Corresponsabilidad y reparto de responsabilidades, reflexión y compromisos para hacer frente a los conflictos de una manera positiva y pacifica para erradicar la violencia; hacia las mujeres, entre iguales...

El objeto de este blog de ZUBIAK ERAIKITZEN (CREANDO PUENTES) es la de informar entorno a esta temática materiales y fuentes de información. En especial el material en euskera. Así se puede encontrar material sobre "feminismo, mujeres protagonistas, imágenes alternativas, tolerancia cero ante la violencia, estudios, jornadas, cuentos"...

UDAL LIBURUTEGIA BERRIZ



# PUNTUA LEIHOAN ERAKUTSI

Euskadiko Udalek Berdinsarean "Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako eta Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Udalen Sareak" 2008. urtean puntu lila, "Emakumeenganako indarkeriaren aurkako" adierazgarri lez erabiltzea onartu genduan.

Urte hartan, puntu lila hura Azaroaren 25erako etxeetako balkoietan, leihoetan eta ageriko tokietan pintzeko deia egin zitzaien euskal herritarrei, indarkeria mota honen aurkako jarrera adieraz zezaten.

Bigarren urtez jarraian, iaz ere zabaldu zen, eta aurtengoan ere ekintza honetan parte hartzeko deia egiten dizuegu. Guztira 72 udalerri baino gehiago hari gara parte hartzen ekintza honetan, tartean Berrizko herria. Hartara, Euskal Autonomi Erkidegoko % 75ek parte hartu ahalko dute puntua kaleratzeko ekintza honetan.

Ebaki ezazu, eta azaroaren 25ean zure etxeko balkoi edo leihoren batean ipini, indarkeria mota horren aurka zaudela adierazteko.

Orri honen atzealdean duzu puntu lila. Ebaki eta erakutsi zu ere «Emakumeenganako indarkeriaren aurka» zaudela.

Bestalde, gogorarazi nahi dugu biktima diren edo izan daitezkeela pentsatzen duten emakumeentzako baliabideak hauek direla: udaletxeko gizarte zerbitzuak eta berdintasun saila. Legeak, baliabide ekonomikoak, laguntza juridikoa eta laguntza psikologikoa bideratzen dira, besteak beste.

Los ayuntamientos de Euskadi a través de Berdinsarea, "municipios vascos por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres" el año 2008, aceptamos y empezamos a utilizar el punto lila como símbolo "contra la violencia hacia las mujeres".

Ese año se hizo un llamamiento para visibilizar el punto en balcones, locales, comercios, para mostrar el rechazo a este tipo de violencia.

El año pasado volvimos con esa acción y este año os enviamos el punto para que volvamos a mostrar nuestra postura. Trabajamos en esto más de 72 municipios, entre ellos Berriz, si tomamos parte en esto más del 75 % de la población de la Comunidad Autónoma Vasca.

El punto lila esta detrás de esta hola, cortarla y muestra que también estas en "contra la violencia hacia las mujeres."

Pro otra parte queremos recordar que,

Si eres victima de maltrato, crees que puedes serlo o alguien de tu entorno puede serlo, hay recursos a disposición;

Servicios sociales del ayuntamiento y el área de igualdad, os ayudaremos entre otros servicios con la normativa, procedimientos, apoyo psicológico, asesoría jurídica.

**Laguntzarako telefonoa 900 840 111**
**Gizarte zerbitzuak 94682 4525**
**Area de igualdad 94682 4036**

**ERASOEN AURREAN EZ IXILDU ETA BALIABIDEAK ESKURATU.**
**No te calles y utiliza los recursos**



## • olentzero eta mari domingi

**ETA GOGORATU!!!**
**OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRI** euskarazkoak eta hezkidetzaileak diren jostailuak gustatzen zaizkie, harreman onak sustatzen dituztenak eta hezitzaileak.

Urtarriletik aurrera: Ikastaro gehiago emakumeon lidergoa sustatzeko, eztabaidak, pelikulak, antzerkiak...

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko eguna aratusteetan izango da. Prestatu aurten modura korrika egiteko.

Eta badakizue: edozertarako, berdintasuna@berriz.org edo udaletxera etorri.

***RECORDAR!!!***
***A OLENTZERO Y A MARI DOMINGI,*** *les gustan los juegos educativos no sexistas, y euskaldunes*

*De enero en adelante; Mas cursos para el liderazgo de las mujeres, grupos de discusión, películas, teatros...*

*El 8 de marzo "Día internacional de las mujeres" coincide con carnavales. Prepararos para correr como este año.*

*Recordar que esta a vuestra disposición el correo electrónico berdintasuna@berriz.org o acercaros al ayuntamiento.*

## • anboto irratia

**EGUENERO GOIZEKO 12:30etan,**
Anboto Irradian, MARIREN PLAZA Eskualdeko berdintasun teknikariak hainbat gairi buruzko informazioa emango dabe.
**99.0 frekuentzian edota**
**www.anboto.org web gunean**






Zalantzarik izanez gero, informazio gehiago jaso edota izena emateko:
**94 682 40 36** edo
**berdintasuna@berriz.org**

Azaleko irudia:
***MIRABAL AHIZPEN HILKETAREN OROIMENEZ, AZAROAK 25***

Hiru ekintzaile politikook Rafael Trujilloren diktadurapean, 1960ko azaroaren 25ean, poliziak bortizki hil zituen. Emakumeen eskubideen aldeko ekintzaileek egun hori deklaratu zuten indarkeriaren kontrako eguna 1981eko uztailetik eta Nazio Batuen Erakundearen Asanblada Nagusiak, 1999an, Emakumearekiko Indarkeriaren kontrako Nazioarteko eguna deklaratu zuen azaroaren 25a.

*Se eligió el dia 25 de Noviembre para conmemorar el violento asesinato de las hermanas Mirabal y toda violencia hacia las mujeres.*

Hurrengo buletinean kontu gehiago, eta badakizu, zalantzak, galderak, proposamenak jasotzeko edota zalantzak argitzeko, deitu edo bidali email bat **berdintasuna@berriz.org** -era eta gustura erantzungo dizugu.

En el próximo boletín daremos más información y si tienes dudas, preguntas o quieres proponernos algo, llama o manda un e-mail a **berdintasuna@berriz.org** y te atenderemos gustosamente.